

MARRAZOEN BAZKA SEKRETUA



**Nagore Irazustabarrena
Uranga**
@irazustabarrena

Filipinetako itsasoa, 1945eko uztailearen 29a. Mochitsura Hashimoto komandan- te zuen I-58 itsaspekoaren tiramenean sartu zen AEBetako armadako Idaho klaseko gurutzantzia astun bat, *USS Indianapolis*. Gerraontziak ez zeraman eskoltarik eta ez zebilen sigi-saga erasoak saihesteko; jomuga erraza zen.

23:26an, itsaspekoa ontzitik 1.500 metrora besterik ez zegoela, Hashimoto sei torpedo jaurtitzeko agindu eman zuen. Helburua jo zuen eta *Indianapolis* minutu gutxian joan zen hondora. AEBetako armadak ez zuen gurutzantzaren SOS seinalerik jaso. Handik ordubetera Hashimoto bidalitako mezua, ordea, bidean atzeman zuten: Idaho klaseko ontziari eraso ziola zioen. Señalea deskodetu eta uztailearen 30ean, 17:00etan iritsi zen estatubatuarren agente-gunera. Baina ez zioten jaramonik egin.

Aste batzuk lehenago ontziak karga sekretua jaso zuen: Hiroshiman jaurtiko zuten bomba atomikoaren uranioa eta beste hainbat osagai. Eta egun batzuk lehenago bomba helburuan utzita, misioa betea zuten. Ontzian gutxi zekiten misioaren berri, ontzitik kanpo are gutxiagok. Japoniarren mezua agente-gu- nera iritsi zenean, txostenak begiratu eta eremu horretan halako ontzirik ez



US NATIONAL ARCHIVES

USS Indianapolis 1939an, japoniar itsaspeko batek hondoratu baino sei urte lehenago.

zegoela ikusi zuten. Japoniarrei atzemandako señalea hutsegite bat zela ondorioztatu zuten.

Abuztuaren 2an hegazkin batek *Indianapolis*-eko naufragoak ikustatu zituen jitoan. Hala, ontzia hondoratu eta lau egunera, erreskate lanak hasi ziren, mantso, erreskate ontzia ez baitzen gauera arte naufragoengana iritsi. *Indianapolis*-en eskifaia 1.199 pertsonak osatzen zuten: 300 bat ontziarekin batera joan ziren itsas hondora; 316 bizirik irten ziren; gainerako 600ak erreskatearen zain hil ziren, ur gazia edateagatik edo deshidratazioak jota batzuk, eraso-

tan jasandako zaurien eraginez beste batzuk... eta, nagusiki, marrazoek erasota. Misio sekretua sekretuegia zen, ur haie- tan bizi ziren marrazoen zorionerako. Lau eguneko oturuntza ederra egin zu- ten AEBetako itsas armadaren kontura.

Estatubatuarren itsas tragedia larrie- narengatik harro ez, eta gertatukoaren berri ez zen askorik zabaldu. Harik eta Steven Spielberg *Jaws* (1975) film arrakastatsuan hizpide izan zuen arte. Robert Shaw aktoreak jokaturako Quint pertsonaiak, lau minutuko bakarrizketa gogoangarrian, egun haietan uretan bi- zitakoa deskribatzen du. ■

SANTABANTA



“Nafarra ez, Iruñekoa”

1974ra arte atzerritarrek ezin zuten jokatu Espainiako futbol ligan. Baina hamarkadaren hasieran jokalaria hegoamerikar andana iritsi zen lehiaketara, espainiar “jatorrikoak” salbuespena baitziren. Eta senide zuzenak ez zituenak, asmatu egiten zituen.

Ramon Alberto Aguirre Suarez argentinarra 1971n hasi zen Granada taldean

jokatzen. Bernardino Perez entrenatzaileak jaso zuen aireportuan eta zera esan zion ostikoak baloiari baino aurrelarietara emateagatik ezaguna zen defentsari: “Esan ezazu aita iruindarra duzula”.

Aurkezpenean kazetari batek galdetu zion: “Beraz, aita nafarra duzu, ezta?” Eta hark erantzun: “Nafarra? Ez, Iruñekoa”. ■